

## **Ezkila joilea, xantrea eta giltzaina Behorlegin (1930-1950)**

E.: aipatu duzu Errientaineko anderea, Graxiana?

J.: Graxiana izena.

E.: hura zeina joile, zeinak... Zeinuak hak joiten zitin.

J.: a ba, enterramendietan eta igandetan eta, egun guzietan, eguerdiak eta ilun zeinak joiten zitxun, oai denak automatique txu, bena ordian, gaixoa, joan bear zuxun, sarri jinen dela erran bear ziaxoxun Marie Pierre-i, oai ez nuxu oit, emazte ua geo xahartia zuxun, hain alaba ba... Hiru, laugarrena beden zixin ene adinekoa, certificat-ian elgarrekin gintxun, pentsa zaxu xahartia zenez, ua jiten zuxun gero eskola bortaat eguerdiko, eta Marie Pierre-i kartzen ziaxoxun gakoa, ta hak, jitian, joiten zitxin eguerdiak, ta han uzten zixin gakoa, oai konpreintzen dixiu ba aise petik gora jin bear baitzen gaixoa ta xaartia baitzen ua, akitzen baitzen araz, bena ez nuxu ohit nola hasi zen, erraiteko, bera menturaz oituko duxu.

E.: zerbait emaiten zinakoten Errientaineko Graxiana orri?

J.: ba, emaiten zuxun, urtian behin, gaitzuru bat ogi, eta gaitzuru bat arto, hara, zer zien alokaidia, neok ez zixin bi sos emaiten ez.

E.: serora erten zinakoten?

J.: ba, Beorleiko serora erraiten zuxun, ama familiako at zuxun bestiak bezala.

E.: bazuten beste ogibiderik etxe ortan?

J.: laborariak zitxun, eta ostatia re iten zixien, ara, errinta edo errintsa re beti an zuxun, pentsionian eta etzaten e ba.

E.: Beorlein zu, orroitzen zira, elizan bazela beste olako pertsonai edo, bakizu? Berezirik, edo elizako gauzetaz okupatzen zena?

J.: ba, denbora hartan bazuxun eta xantria, erraiten zena, giltzaiña re ba, ogi benedikatia re emaiten baitzen, predikutik landa, giltzaiña pasatzen zuxun ogi benedikatiaikin, eta ogi beneikatu hua etxeetan trukatzuz emaiten zixien, giltzaiñak ogia puxkatuik ezartzen zixin xare aten barnian, eta nok baitzien ondoko igandean eman behar, hak bazixin ogi trantxa at, hua zuxun, hak ogia ekarri bear zixin ondoko igandian.

E.: bakotxak artzen zin ogi pixka at.

J.: usaia, ba.

E.: meza denboran.

J.: ogi ttipi bat, etxean iten zitxun ordian, ogi ttipi bat eremaiten xinien elizaat, xure aldia zelaik.

E.: giltzaina nola hautatzen zen? Gizona zen?

J.: ba, ba, gizon... Hak prestatzen zixin eliza, argiak pizten eta aldarea prestatzen, geo kantuz e artzen zuxun.

E.: nok izendatzen zuen gizon ura, nola hautatzen zen...

J.: bana hua re etxek paatzen zixien trukatzuz, ogi benedikatu ori bezala, ez nuxu ohitzen haatik ze paatzen gindien erraiteko re.

E.: bena giltzaina bera, urtean urteka kanbiatzen zen?

J.: iten balin bazien, ez, bon, etxean ez bazen neor e, guk ukan dixiu giltzain bera zenbait urtez, Sen Jan zixin izena, hara, hua paatzen zixien jendek.

E.: zoin etxetakoa zen?

J.: ez zuxun hemengoa, bana hemen egoiten zuxun, Hur Onddoan, hain aita, denbora hartan bazitxun jendeak etxeik ez zutenak bena lanian iiltzen zienak etxetan, halako aten semia zuxun, Piarre zuxun hain aita, etxetan langile hiiltzen, eta bizi zitxun Hur Onddoan erraiten dakoten etxe atian.

E.: Beorlegin xantria ere bazela.

J.: ba.

E.: hak ze iten zien?

J.: kantiak eta hak hasten zitxin, aldarian egoiten zuxun ua, ta kantuz salbu ez diakixut besteik ze iten zien nik.

E.: ta giltzaina re hain ondoan?

J.: giltzaiña re hain ondoan, giltzainak baziakixut eta argiak eta aldarian eta pizten eta, gero hiltzen eta, donc ogi benedikatu ua re, eskia re hak iten zixin, lehenik eskia iten zixin eta gero ogi benedikatu ua emaiten, olako puxka ttipi batzu iten zitxin, ogia oso ogia emaiten zuxun, ta hak ua prestatzen zixin meza aitzinian doikabe.

E.: zuk zautu duzun giltzaina, Xen Jan, Hur Onddoan bizi zena, hak ze adin ziin, eta xantriak ere ze... Gizon zohituak ziren?

J.: ba, Sen Jan ua, aise gu bano zaarro zuxun, zonbat urte ez dauxut errain, menturaz, amar urte.

E.: adina, zenbat urte zitien?

J.: ez baitakit xuxen erteko, berroita zenbait urte beden, ua etxetan lanian iiltzen zuxun egunka, gaur hemen eta bihar beste etxe atian eta ola.

E.: ta xantria?

J.: xantria an egoiten zuxun ba, a nik xahartia zautu dixit ua, eta ez nuxu seur bena iduri ziaxu gero alabain etxeat joan zela ua, bena ez nuxu sobera seur.

E.: bere etxetik?

J.: bere etxetik, bakarrik ta xaartia baitzen!

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna  
Alexander Artzelus Muxika  
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy  
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila  
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa  
Letren Fakultatea  
UPV-EHU  
Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.  
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala